

PALESTINAREKIN ELKARTASUNA SUSTATZEKO UNITATE DIDAKTIKOA

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

2025-11-20



1. Ekimena.....	3
1.2 Helburuak.....	3
2. Erreferentziazko marko teorikoa.....	4
2.1 Haurren eskubideak.....	4
3. Justifikazio pedagogikoa.....	5
4. Hartzaileak.....	6
5. Kokapena eta eragin-eremua.....	6
6. Proiektuaren helburu orokorrak.....	6
7. UNITATE DIDAKTIKOA.....	7
7.1. Justifikazioa.....	7
7.2. Helburuak.....	7
7.3. Jarduera.....	8
Deskribapena.....	8
Antolaketa.....	8
Helburuak.....	9
Denboralizazioa 50 minutu.....	9
Materiala.....	9
Ebaluazioa.....	9
7.4. Jarduera.....	10
Deskribapena.....	10
Antolaketa.....	10
Helburuak.....	11
Denboralizazioa 50 minutu.....	11
Materiala.....	11
Ebaluazioa.....	11
Bibliografia.....	12
Eranskina I.....	13
Eranskina II.....	15

1. Ekimena

Proposamen honek elkartasunaren, gizarte-justiziaren eta giza eskubideen defentsaren balioetan hezteko beharrianetik abiatzen da, ikasleei gatazka-testuinguruetan, Palestinako kasuan bezala, haurrek bizi duten errealitatea hurbilduz. Ikasgai-unitate honek enpatia, pentsamendu kritikoa eta elkartasun-ekintza gauzatzeko gaitasuna sustatu nahi ditu eskolako testuinguruan.

Ekimena Palestinaren kausari ahotsa emateko eta hezkuntza-komunitate gisa mobilizatzeko beharrianetik sortzen da, Israelgo estatu sionistak burutzen ari den genozidioaren aurrean. Helburu nagusien artean daude Palestinako haurrek bizi duten zaurgarritasun egoera larria ezagutaraztea eta ikastetxeko ikasleak, haien familiek eta, aukera egonez gero, gainerako ikastetxeek zein Nafarroako Foru Komunitateko herritarrek, Franja eta Zisjordanian bizi den palestinar populazioaren egoera prekarioaz jabetzea. Horretarako sortu dugu Unitate Didaktiko hau (UD), 3 eta 12 urte bitarteko ikasleekin geletan lantzeko.

UD honek ez du jabetza intelektualik eta dohainik erabili ahal izango da; gainera, adin-tarte bakoitzera edo lantzeko tokiko idiosinkrasiara egokitu ahal izango da.

1.2 Helburuak

1-Palestinako historia eta gaur egungo egoera ezagutzea.

2-Palestinako haurren errealitatea ezagutzea.

3-Pertsonen eta herrien arteko harremanek nolakoak izan behar duten zehazten duen marko juridiko bat dagoela eta errespetatu egin behar dela ulertzea.

4-Munduko beste edozein lekutan bezala Palestinan hezkuntza ziurtatuta egon dadin egin daitezkeen ekintzak deskubritzea.

5-Nazio Batuen Erakundeak (NBE) onartutako Haurren Eskubideei buruzko 10 printzipio unibertsalak ikastea, eta Lehen Hezkuntzako etapako a), b), c), d) eta m) helburu desberdinak ikasleekin lantzea. Helburu horiek Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-curriculumean jasota daude. 67/2022.

2. Erreferentziazko marko teorikoa

Proiektua **Haur Eskubideen Hitzarmenaren** (1989) baitan kokatzen da, bereziki 28. eta 29. artikuluetan, non hezkuntzarako eskubidea eta haren helburuak aitortzen diren. Halaber, **LOMLOE**rekin (3/2020 Lege Organikoa) eta Nafarroako **67/2022 Foru Dekretuarekin** bat dator, azken honek curriculum konpetentziala, inklusiboa eta herritartasun globalera bideratua ezartzen baitu.

2.1 Haurren eskubideak

Proiektu hau **Haurren Eskubideen Hitzarmenaren** baitan kokatzen dugu, Nazio Batuen arabera izaera lotesle eta juridikoa duen lehen legea baita. Guk, ordea, zalantzan jartzen dugu hori benetan betetzen denik, izan ere, badaude ebidentzia ugari Gazan eta Cisjordania Lurralde okupatu guztietan hitzarmen hori urratzen dela erakusten dutenak. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dugu gure haur eta gazteekin lantzea, ez baitira beti egoera honetaz kontziente.

Ondoren, lege izaera duen hitzarmen honi buruzko laburpen bat egingo dugu, hezkuntzari buruzko artikuluei arreta berezia jarritz. Hala ere, proiektu osoan zehar ikusiko dugunez, garrantzitsutzat jotzen ditugu Hitzarmenean jasotako artikuluguztiak, izan zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak edo kulturalak. Hitzarmenak 54 artikuluditu, eta 18 urtetik beherako pertsona guztiei gizakiaren eskubide osoak aitortzen dizkie.

1959an, Nazio Batuek **Haurren Eskubideen Adierazpena** onartu zuten, 10 printzipio jasotzen zituen. Baina 1978an, hamar urteko negoziazioaren ondoren, 20 herrialdek aurkeztu eta sinatu zuten **Haurren Eskubideen Hitzarmena**. Gaur egun, munduko herrialde guztiek berretsi dute, bi izan ezik: Somalia eta Estatu Batuak.

“Haurren eskubideak guztiz jasota daude Haurren Eskubideen Hitzarmenean. Hamar urtez osatu zen, gizarte, kultura eta erlijio ezberdinetako ordezkarien ekarpenei esker. Hitzarmena 1989ko azaroaren 20an onartu zen nazioarteko giza eskubideen itun modura” (UNICEF).

Ondoren, **Adierazpeneko 10 printzipioak** aipatuko ditugu, eta gero 28. eta 29. artikuluetan jarriko dugu arreta, proiektu hau kokatzen dugun erreferentziazko markoa ezartzeko.

Printzipioak:

1. Berdintasunerako eskubidea, arraza, erlijio edo nazionalitatearen araberako bereizkeriarik gabe.
2. Babes berezia jasotzeko eskubidea, fisikoki, mentalki eta sozialki osasuntsu eta libre hazi ahal izateko.
3. Izena eta nazionalitatea izateko eskubidea.
4. Elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta egokia izateko eskubidea.

5. Hezkuntza eta arreta berezia jasotzeko eskubidea desgaitasun fisiko edo mentalak dituzten haurrek.
6. Familiaren eta gizartearen ulermena eta maitasuna jasotzeko eskubidea.
7. Doako hezkuntzarako eskubidea. Jolasteko eta ongi pasatzeko eskubidea.
8. Arrisku egoeretan arreta eta laguntza berezia jasotzeko eskubidea.
9. Abandonuaren eta lan-esplotazioaren aurka babestua izateko eskubidea.
10. Elkartasuna, adiskidetasuna eta justizia sustatuko dituen hezkuntza jasotzeko eskubidea.

3. Justifikazio pedagogikoa

Aurretik azaldu bezala, gure proiektua **1989ko azaroaren 20an ezarritako Haurren Eskubideen Hitzarmenaren** baitan kokatzen dugu, 1990ean lege-izaera hartu zuena eta 20 herrialdek sinatu zutena.

Gaur egun, Hitzarmena munduko herrialde guztiek berretsi dute, bi izan ezik: Somalia eta Estatu Batuak. Gure helburua artikulua guztiak lantzea da, baina bereziki arreta jarri **28. eta 29. artikuluetan**, Hezkuntzarako Eskubideari buruzkoak baitira.

Hezkuntza ezinbesteko tresna da gizarte justu eta demokratikoak eraikitzeko. Ikasleei giza eskubideen urraketa gertatzen den errealitateak hurbiltzeak kontzientzia kritikoa, enpatia eta erantzukizun soziala sustatzen ditu. Egia da Palestinako Lurraldeetan, hau da, Zisjordanian eta Gazan, Israelek etengabe urratzen dituela haurren eskubideak.

Proiektu honek aukera ematen du konpetentzia giltzarriak garatzeko, hala nola hizkuntza-komunikazioa, herritartasun konpetentzia, pertsonala eta soziala, digitala eta kultura-artistikoa.

Nafarroako **67/2022 Foru Dekretuan** eta **LOMLOEn** (3/2020 Lege Organikoa) jasotako etapako helburuak honako hauek dira:

- a) Bizikidetzako balioak eta arauak ezagutzea eta baloratzea, horien arabera modu enpatikoan jokatzeko ikastea, herritartasun aktiboan aritzeko prestatzea eta giza eskubideak errespetatzea, baita gizarte demokratiko baten berezko pluralismoa ere.
- b) Banakako eta taldeko lan ohiturak garatzea, ikaskuntzan ahalegina eta erantzukizuna baneratzeko, baita norbere buruarengan konfiantza, pentsamendu kritikoa, ekimen pertsonala, jakin-mina, interesa, sormena eta espiritu ekintzailea ere.
- c) Gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta indarkeria nahiz diskriminazioa prebenitzeko gaitasunak eskuratzea, horiei esker esparru eskolarean eta familiarrean, bai eta harremanak dituzten gizarte-taldeetan ere, autonomiaz jardun ahal izateko.

d) Kultura ezberdinak eta pertsonen arteko desberdintasunak ezagutzea, ulertzea eta errespetatzea, emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna sustatzea, eta ez-diskriminazioa bermatzea etnia, sexu-orientazioa edo identitate sexuala, erlijioa edo sinesmenak, ezgaitasuna edo bestelako baldintzak direla-eta.

m) Nortasunaren arlo guztietan eta beste pertsonekin dituzten harremanetan gaitasun afektiboak garatzea, eta aldi berean, indarkeriaren, aurreiritzi mota guztien eta estereotipo sexisten aurkako jarrera lantzea.

4. Hartzaileak

Proiektu honen hartzaile zuzenak hauek dira:

- **Haur Hezkuntza (H.H.)**
- **Lehen Hezkuntza (L.H.)**

5. Kokapena eta eragin-eremua

Lehenik eta behin, Nafarroako Foru Komunitatean, eta ondoren zabaltzeko aukera Euskal Herriko gainerako lurraldeetara, Kataluniara, Galiziara eta Espainiako estatura.

6. Proiektuaren helburu orokorrak

- Palestinaren kokapen geografiko eta sozialaren berri izatea.
- Palestinako populazioaren egoeraz sentsibilizatzea.
- Elkartasuna eta enpatia bezalako balioak lantzea herrialdeko hezkuntza-instituzioen bidez.
- Haurren Eskubideak eta horien urraketak ezagutzea Palestinako Lurraldeetan.
- Palestinaren aurkako Israelen jazarpena amaitzen laguntzea.
- Hezkuntza-komunitatearen parte-hartze aktiboa sustatzea Palestinako genozidioaren aurka.

7. UNITATE DIDAKTIKOA

7.1. Justifikazioa

Jarduera honen helburua da irakasleei tresna eta baliabide didaktikoak eskaintzea, ikasleekin gaur egun Palestinako biztanleek bizi duten testuingurua eta egoera lantzeko, Giza Eskubideen eta Haurren Eskubideen urraketan analititik abiatuta. Bereziki, haurrek eta gazteek jasaten duten **hezkuntzarako eskubidearen urraketan** jarriko da arreta.

Ikasgai-unitateak 2 jarduera ditu, gida honetan xehetasunez azalduak, eta eranskinetan jasotako baliabide eta materialetan oinarrituta garatuko dira.

Gainera, jarduera honetan emandako informazioen iturri izan diren hainbat dokumentu ofizial ere gehitu dira.

7.2. Helburuak

- Kultura ezberdin batean gertatzen denari buruz jakin-mina eta interesa erakustea.
- Ingurune kultural berria ezagutzeak eragindako sentimenduak, emozioak eta sentsazioak ahoz adierazteko gai izatea.
- Konturatzea ez dela bidezkoa batzuk oinarritzko beharrak (ura, etxebizitza, eskola...) asetuta izatea eta beste batzuek ez izatea.
- Lurralde blokeatu eta okupatu baten ezagutza bidez, gainera genozidioa pairatzen duena, elkartasun-sentimendua piztea.
- Ikasleen parte-hartzea sustatzea eztabaidan.
- Adiskidetasun- eta samurtasun-sentimenduak agertzea eta sentimendu horien arabera harremanak ezartzeko gai izatea.
- Ingurune natural eta sozialeko elementuak aldatu daitezkeela identifikatzea, giza esku-hartze bat gertatzen bada.
- Beste ingurune kultural batzuetako elementu, adierazpen eta ohitura batzuk identifikatzea.
- Desberdintasuna balio positibo gisa lantzea.
- Jarduerako pertsonaien giza-ingurunea ezagutzea.
- Bi inguruneren artean behaketaren bidez antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea.
- Palestinako haurrek bizi duten gerra/gatazka-egoera eta horren arrazoiak ezagutzea.

- Gatazka-testuinguru batean zailtasunekin bizitzeak zer esan nahi duen lantzea, Gazako eta Zisjordaniako palestinarren eguneroko zailtasunak erakutsiz.
- Haurren Eskubideez eta horien urraketa kontzientziaztea, Palestinako testuinguruaren gisako egoeretan.

7.3. Jarduera

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako jarduera.

Jardueraren izena: *“Nola bizi dira Isham eta Miasha?”*

Deskribapena

Jarduera honek Gazako mutil eta neska batek idatzitako gutun baten irakurketa du oinarri.

Lehenik, gutuna banatuko zaio ikasle bakoitzari edota adinaren arabera edota taldeko gaitasunaren arabera irakasleak irakurri dezake talde guztiarentzat. Bakoitzak bere kabuz isilik irakurtzeko. Irakurri ondoren, eztabaida txiki bat irekiko dugu, ikasleek gutun hori nondik idazten duten eta zertaz ari diren identifikatzen duten ikusteko.

Irakurketaren eta ondorengo eztabaidaren ostean, irakasleak galdetegi baten bidez gidatuko du saioa, **Haurren Eskubideen Adierazpeneko 10 printzipioetara** eramateko. Printzipio horiek elkarrekin idatziko daitezke, arbela batean edo kartulina handi batean, eta klasean edo eskolako pasilo batean jarri ahalko da.

- Nondik idazten digutela uste duzue?
- Zer esan nahi dute esaldi hau aipatzen dutenean: “ ... ”?
- Uste duzue haur hauek oinarrizko beharrak beteta dituztela? Ura, ogia, janaria, eskola, arropa...
- Uste duzue haur hauek babestuta daudela?
- Nolako etorkizuna espero zaie haur hauei?...

Antolaketa

- Gutunaren irakurketa eta eztabaida txikia.
- Irakurmenaren ulermena eta eztabaida.
- Haurren Eskubideen 10 printzipioak idaztea.

Helburuak

- Gure lurraldeko hezkuntza-komunitatea Palestinako haurren errealitateaz sentsibilizatzea.
- Palestinako haurrek jasaten duten **Haurren Eskubideen urraketa**z kontzientziaztea.
- Haurren Eskubideak lantzea.

Denboralizazioa 50 minutu

a) Gutunaren irakurketa – 10 minutu

Haurren printzipioen inguruko gutunaren irakurketa indibidualki edo ozenki.

b) Irakurketa ulermena eta eztabaida – 20 minutu

Edukia aztertzeko jarduera gidatua, haren esanahia hausnartu eta taldean eztabaidatzeko.

c) Haurtzaroko 10 printzipioak berridaztea – 20 minutu

Lan indibiduala, taldeka, hirunaka... printzipioak norberaren hitzekin berridazteko eta mezua barneratzeko.

Materiala

a) Isham eta Miasha-ren gutuna (I.eranskina).

b) DIN A3 kartulinak, paperak, pankartak... Haurren Eskubideen 10 printzipioak idazteko (II.eranskina).

Ebaluazioa

Jardueran zehar, behaketa zuzenaren bidez, irakasleak ikasleek edukiak ulertzen dituzten eta jarduerari behar bezala erantzuten dioten detektatu behar du, behar izanez gero gidatuz.

Bateratzean, landutako edukiei buruzko ikasleen sakontasun, ulermen eta parte-hartze maila agerian geratuko da.

7.4. Jarduera

Lehen Hezkuntzako ikasleentzako jarduera.

Jardueren izena: *“Zer egin dezakegu guk?”*

Deskribapena

Jarduera honetan hezkuntza-komunitatea aktibatzean zentratuko gara, genozidioaren aurka modu zuzenenean egiteko.

Lehenik eta behin, gure ikasleak 4 edo 5 laguneko lan-taldeetan antolatuko ditugu, ikasgelako ratioaren arabera. Talde bakoitzean rolak banatuko ditugu, ikasle bakoitzak gutxienez funtzio bat izan dezan (idazkari, moderatzaile, bozeramaile, materialaren arduradun, laguntzaile edo hizkuntzaren arduradun).

Galderen bidez, ikasleei proposatuko diegu ideia-jasa egitea, gure egunerokotasunetik nola lagun genezakeen Palestinako herriari.

Behin ideia-jasa abiatuta, erakutsiko dugu gizarte zibilak nola erantzuten duen genozidio honen aurrean (askatasunaren flotila, manifestazioak, Espainiako itzuliaren protesta, greba eguna...), baita ere azalduko dezakegu zer esan nahi duen “boikot” hitzak eta Palestinako genozidioa zuzenean sostengatzen duten marka eta produktu horien aurkako boikot-kanpaina. Produktu eta marka edo establezimenduen zerrenda bat sortuko dugu eta parte-hartze aktiboa sustatuko dugu marka horiek ez kontsumitzeko.

Era berean, prestatuta edukiko dugu marka horiek genozidioa zergatik sostengatzen duten eta nola egiten duten azaltzeko.

Antolaketa

a. Ikasleak lan-taldeetan (4/5) antolatzea. Rolak banatzea. Rol bakoitzaren funtzioa:

- **Idazkaria.** Taldean ateratzen diren ideia guztiak idatziko ditu.
- **Moderatzailea.** Hitz txanda emango du eta eztabaida edo ideia-jasa moderatuko du, baita bolumena gehiegi ez igotzea kontrolatuko ere.
- **Bozeramailea.** Taldeka lan egitea amaitzean, bere taldean bildutako ideiak azalduko ditu.
- **Materialaren arduraduna.** Jardueran erabilitako materiala jasotzeaz eta antolatzeaz arduratuko da.
- **Laguntzailea edo hizkuntzaren arduraduna.** Eskatzen zaion tokian lagunduko du eta lana katalanez, euskaraz, gaztelaniaz, galegoz eta abarrez egiten bada, hizkuntzaren erabilera zuzena dela bermatzeaz arduratuko da.

Helburuak

- Hezkuntza-komunitatearen parte-hartze aktiboa sustatzea Palestinako genozidioaren aurka.
- Ikasleen kontzientzia kritikoa piztea injustizien aurrean.
- Haurrak materialak edo ideiak ekartzera motibatzea, Palestinako kausari modu aktiboan laguntzeko eta aurre egiteko.
- Palestinako injustiziarekin amaitzeko ekimen sozialak azaltzea.
- Israelgo estatu sionistari babesa ematen dioten produktu eta establezimenduen aurkako boikot-kanpaina ezagutaraztea eta bertan parte hartzera animatzea.

Denboralizazioa 50 minutu

- Lan-taldean antolaketa eta rolen banaketa (10 minutu).
- Laguntzeko ekintzen Ideia-jasa eta ideien bilketa (15 minutu).
- Ideien aurkezpena (15 minutu).
- Boikot-kanpainaren, produktuen eta enpresen azalpena (10 minutu).

Materiala

- Boligrafoa eta papera ideia-jasa idazteko
- DIN A3 kartulina (Aukeran: Palestinako lurralde okupatuetan genozidioa sostengatzen duten produktu eta enpresak idazteko).

Ebaluazioa

Jardueran zehar, behaketa zuzenaren bidez, irakasleak ikasleek edukiak ulertzen dituzten eta jarduerari behar bezala erantzuten dioten detektatu behar du, behar izanez gero gidatuz.

Bateratzean, landutako edukiei buruzko ikasleen sakontasun, ulermen eta parte-hartze maila agerian geratuko da.

Bibliografia

- https://www.rumboagaza.org/wp-content/uploads/2010/10/Proyecto_educativo.pdf
- <https://sites.google.com/educacion.navarra.es/curriculos-de-navarra/etapas/educaci%C3%B3n-primaria>
- <https://www.gernikapalestina.eus/es/>
- <https://yalanafarroa.com/>
- [La historia de Handala](#)
- [Porque hacer boicot a Israel](#)

Argazkiak

- [Amnistia internacional](#)
- [La coordinadora](#)
- [El pais](#)
- [Tierra](#)
- [abc](#)
- [Los Angeles time](#)
- [New York Times](#)
- [Jeruzalem post](#)
- [Levante-emv](#)
- [Frencce 24](#)

Eranskina I

Gutuna Palestinatik

Kaixo lagunak,

Gure izenak Isham eta Miasha dira. Palestinan bizi gara, eta zuei gutun hau idatzi nahi dizuegu gure oraingo bizitzaz pixka bat kontatzeko.

Gure hizkuntzan eguzkia esaten da shams (شمس). Eguzkia gustatzen zaigu, beroa eta argia ekartzen dituelako gure etxeetara.

Kalean jolasten dugu, baina batzuetan zarata handia entzuten da, eta korrika egin behar izaten dugu etxe barrura edo babesgune batera. Beldur pixka bat ematen digu eta lagunak elkarri laguntzen gara.

Txokolatea aspaldi ez dugula jan, zeren elikadura lortzeko zaila dugu. Batzuetan ogi apur bat eta ura besterik ez daukagu. Gure amak izugarrizko indarra du beti esaten digu itxaropena ez galtzeko.

Ziurrenik gure inguruan entzun duzue, ikusi baitugu kaleak betetzen dituzuela guri babesa erakusteko eta genozidio hau amaitzeko. Horrek bihotza berotzen digu, eta eskerrak ematen dizkizuegu zuen maitasunagatik.

Faltan botatzen ditugu gure familiako kide asko, aitatxi, izeba, gelakideak... , gogoratzen ditugu irribarrez eta triste. Beraien oroitzapenak gure bihotzean ditugu.

Babesa ematen gabilta bata besteari, denok bizitu baitugu galeraren bat. Batzuetan negar egiten dugu eta baita elkarri besarkadak eman ere.

Eskerrik asko gure gutuna irakurtzeagatik. Agian egunen batean eguzki beraren azpian jolastuko gara elkarrekin, bakean eta txokolatea partekatuz.

Isham eta Miasha

Glosarioa / Hiztegitxo (arabieraz):

Euskaraz	Arabieraz
Eguzkia	شمس (<i>shams</i>)
Bakea	سلام (<i>salaam</i>)
Lagun	صديق (<i>sadiq</i>)
Ama	أم (<i>umm</i>)
Ura	ماء (<i>maa'</i>)
Ogi	خبز (<i>khubz</i>)
Maite zaitut	أحبك (<i>uhibbuka/uhibbuki</i>)
Eskerrik asko	شكراً (<i>shukran</i>)

Eranskina II

**1. ARRAZA ERLIJIO EDO
NAZIONALITATE BEREIZKETARIK GABE
BERDINTASUNERAKO ESKUBIDEA.**

**2. GARAPEN FISIKO, MENTAL ETA
SOZIALERAKO BABES BEREZIRAKO
ESKUBIDEA.**

**3. IZENA ETA NAZIONALITATEA
IZATEKO ESKUBIDEA.**

**4. ELIKADURA, ETXEBITZA ETA
OSASUN-ARRETA ESKUBIDEA HAURRA
ETA AMARENTZAT.**

**5. MENTALKI ETA FISIKOKI
DESGAITASUNA DUTEN
HAURRENTZAT, HEZKUNTZA ETA
ZAINTZA BEREZIAK IZATEKO
ESKUBIDEA.**

**6. GURASO ETA GIZARTEAREN
ULERMEN ETA MAITASUNERAKO
ESKUBIDEA.**

**7. HEZKUNTZA DOAKOA IZATEKO ETA
JOLASTEKO ESKUBIDEA.**

**8. HONDAMENDIEN AURREAN
LAGUNTZA JASOTZEKO LEHENENGOAK
IZATEKO ESKUBIDEA.**

**9. ABANDONOAREN ETA
LAN-ESPLOTAZIOAREN AURKAKO
BABESERAKO ESKUBIDEA.**

**10. HERRIEN ARTEAN ELKARTASUN,
ULERMEN, ADISKIDETASUN ETA
JUSTIZIA ESPIRITUAN HEZTEKO
ESKUBIDEA.**